



DROGA ETA DROGAZALETASUNA

Ezer asko jakin gabe baina, denok mintzatu gara, azken urteotan, droga dela eta ez dela.

Berriki, Frantzian, drogaren salmenta «zerbitzu izkutuen» sekretuekin nahastu da. Nahaspila ikaragarria, izenak aidean: Delouette, Fournier... Salaketak eta defentsak.

Lehen misteriotso bazen, orain misteriotsoagoa da droga-hauzi hau.

Bestalde, uda guztitan, periodikuek drogaren berriak ugariago zabaltzen dizkigute. Nunahi agertzen da droga, etsai hori. Noiznahi eta nunahi zabaltzen dira susmoak: halako neska hura drogatua izan omen da, whisky-basoan droga-hautsa jarri omen diote. Badakigu: omenka ari da jendea.

Nun da egia? Inork ez daki. Binbitartean, beldurrak, segurtasunik-ezaren larridurak bere lana egiten du: 60% frantsesentzako droga da kezka nagusia.

Euskaldunen estadistikarik ez dugu. Halere, drogarl buruz zenbait artikulu eskaintzea interesgarri izan daitekeela pentsatu dugu.

DROGAREN AURREAN

Droga! Gurasoak larri daude, bere semeak gaitz horrek harrapatuko ez ote dituen.

Agintariek erabakia hartu dute: ez gehiago drogarik gure Drogaren izenak sortzen duen izua eta espantua ikusita, beste espantu eta izu bat dator kigu gogora. Antzinateko gudateetan, guda-salatariak oihukatzen zuena: «Etsaia atetan dugu!». Eta denak gaztelu bainera biltzen ziren, defentsarako.

Drogarekin berdin gertatzen da. Atetan dugun etsaia da droga. Atetan, zeren-eta ez etxe barruan. Izan ere, droga «gure artean-Jainkoari-esker-ez-dagoen-gaitza» da. Droga, kanpoko, urrutiko fenomeno da, Ameriketakoa, Eskandinabiakoa. Gure artera, kanpotik dator beti. Gure herria, pasaia-leku da. Gure herria, gure aberria, biktima da. Beraz, etsaiaren kontra defenditu beharra dugu.

Droga? Misterio-kutsu liluragarri inguratuta agertzen zaio askori droga. Aipatzea aski da, amaigabeko posibilitateak amesteko! Droga espiritualizaturik agertzen zaio, sarri, gazteari. Bestalde, Gizadiaren hasieratik (Paradisua gogora ezazu) fruitu debekatuak gosea bizten du. Zergatik entseatu ez? Askorentzat droga ez ote da «Ona eta Gaitzaren Hauzia» erabakiko duen arbola?

DROGAK

Drogari, ahal den neurrian, drama-itxura eta misterio-kutsu hori kendu egin behar diogu. Nola? Bide bat, informatzea da, droga-mundu hori ezagutaraztea.

Halere aitor dezagun ez dela erreza. Nun hasten da droga, nun bukatzen? Hortan ikasiak direnak ere ez dator askotan bat. Marijuana droga da, eta tabakoa ez, zergatik hola biak toxiko izanik? «Haschisch»-a tabakoa baino kaltegarriagoa ote da? Oro har, alkoholak ez ote du kalte gehiago egiten?

Galdere hauen erantzuna, zalantzarik gabe, midizina-alorrean ez da kabitzen.

Droga-mundu hori argitu nahiz gabiltzanes gero, esan dezagun badirela droga naturalak eta droga kimikoak. Ez hiruzpalau. Midizina-aldizkarietan irakur daitekeenez, bostehundik gora dira kimikaren bidez lortzen diren ordetxoak.

Ondorioetatik jugsatuz, diru droga-mota bereiz gaitzake:

—Amets-erazleak (alucinogeno): haschisch, marijuana, LSD, meskalina.

—Geldi-erazleak (estupefaciente): opium, morfina, heroina.

—Bizkor-erazleak (estimulante): anfetamina, cocaina.

DROGA ONIK BAI OTE?

Bistan denez, droga guztiek ez dute arrisku bera, atsegin bera. Droga «txikerrak» (marijuana, haschisch) ez dute berez ondorio gogorrik. Heroina, aldiz, azkena da. Olievenstein doktor jaunaren iritziz, heroinaz drogatzeko zortetasuna, esklabutza eta seguruenik heriotza hautatzea da.

Gogorra ala ez, droga «onik» ez dagoela esan behar da. Edozein drogaren arriskua «eskalada» delako hori bait da. Alegia, behin hasiz gero, edo maizago drogatzera edo droga gogorragoak hartzera behartua izan ohi dela drogazalea. Haschisch ez da ardoa baino kaltegarriagoa medikalki. Bai, ordea, sozialki, Olievenstein jaunaren ustez.

HERRI ABERATSEN GAITZ HORI

Drogatzen hasteko arrazoiak edo atxakiak mila dira. Badira axalekoak, esaterako, moda, ausardia erakutsi nahia, abentura-izpiritua, talde-ohitura. Badira arrazoi sakonak, funtsezkoak, ere. Denak bil daitezke puntu batean, nere ustez: gizartearen ukapena. Ezin da ahaztu, drogazaleen artean, 80%, familia-giro nahastuetan sortu direla.

Itsuenak ere ikusten du droga-arazoa ez dela bakarrik midikutzari dagokiona. Ez eta ere lege eta polizia problema bat, Hemen, funtsean, problema sozial eta kultural bat dago. Hitz handi batekin esateko: zibilizazio krisia.

Batzuek uste dute droga gure gizartetik kenduz gero gazteriaren problema erabakita dagoela.

Beste batzuek pentsatzen bide dute droga hartuz gure gizarte hau hondatu dutela eta gizarte berri eta hobea sortu.

Ez bata eta ez bestea. Droga ez bait da gazteriaren ezin-egonaren kausa. Droga ez bait da historiaren motorra.

A. Girardin-ek maite duen irudi batez esateko: «Iceberg» delakoaren zatitxo bat da droga, ikusten den alderdia. Baina badakigu izotz-mendi horren 99% ur barnean dela.

Joan Mari Torrealdai